


eman ta zabal zazu




Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
The University of the Basque Country

IKT GERENTEORDETZA

VICEGERENCIA TIC

# GORDETALDE:

Fitxategiak gordetzeko zerbitzua UPV/EHUko  
AZP, irakasle eta ikertzaile taldeentzat


 <b>U.P.V. E.H.U.</b> <b>IKT Gerenteordetza</b>	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>2 / 11</b>

# GORDETALDE:

Fitxategiak gordetzeko zerbitzua UPV/EHUko AZP,  
irakasle eta ikertzaile taldeentzat

<b>0.</b>	<b>DOKUMENTU HONI BURUZ.....</b>	<b>3</b>
<b>1.</b>	<b>ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA.....</b>	<b>3</b>
<b>2.</b>	<b>ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZAK.....</b>	<b>3</b>
<b>3.</b>	<b>ZERBITZUA NORI ZUZENDUA DAGOEN.....</b>	<b>4</b>
<b>4.</b>	<b>ZERBITZUA ERABILTZEA.....</b>	<b>4</b>
4.1	BALDINTZAK.....	4
4.2	SARTZEKO MODUA.....	4
<b>5.</b>	<b>PASAHITZA ALDATZEA.....</b>	<b>7</b>
<b>6.</b>	<b>CHECKPOINT-AK.....</b>	<b>8</b>
<b>7.</b>	<b>ZERBITZUA BERTAN BEHERA UZTEA.....</b>	<b>10</b>
<b>8.</b>	<b>ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA ZERBITZUA.....</b>	<b>11</b>

---

 <b>U.P.V. E.H.U.</b> <b>IKT Gerenteordetza</b>	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>3 / 11</b>

## 0. DOKUMENTU HONI BURUZ

Dokumentu honen azken bertsioa honako helbidean dago eskuragarri:

[www.ehu.es/gordetalde](http://www.ehu.es/gordetalde)


## 1. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzu honek zerbitzariaren diskoan gune bat izatea ahalbidetuko du fitxategiak gorde eta horiek eskura izateko, lantokiko disko lokalean baleude bezala. GORDETALDE ez da zerbitzu pertsonal bat, baizik eta talde-zerbitzu bat, erabiltzaile desberdinen artean informazioa partekatuz bideratua. GORDETALDE zerbitzuko karpeta konpartitu bakoitzeko administratzaile bat egongo da (zerbitzua eskatu duena, normalean), baliabide hau erabiltzeko baimenak gestionatzeko ardura izango duena. Gestio hau [www.ehu.es/gordetalde](http://www.ehu.es/gordetalde) helbidearen bitartez egingo da.

## 2. ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

UPV/EHUK, IISIGren bidez, honako baldintzak zehaztu ditu zerbitzu hau erabiltzeko:

- Karpeta konpartituaren administratzaileak eta karpetara irakurtzeko moduan zein idazteko moduan sartzeko aukera duten gainerako erabiltzaileek UPV/EHUKo AZP, irakasle edo ikertzaileak izan behar dute.
- Karpeta konpartitu bakoitzeko administratzaile bakarra egongo da momentu bakoitzean, nahiz eta administratzaileak karpeta bat baino gehiago izan ahalko dituen bere ardurapean.
- Karpeta konpartituaren administratzailea (zerbitzua eskatzen duena, normalean) izango da kasuan kasuko taldeak gestionatuz irakurtzeko edo/eta idazteko baimenak emateko arduraduna, baita karpetaaren gestioa beste pertsona bati lagatzeko arduraduna ere. Gestio guzti hauek [www.ehu.es/gordetalde](http://www.ehu.es/gordetalde) helbidearen bitartez egingo dira.
- Zerbitzu hau erabilera instituzionalerako da; hortaz, gordetako edukiek erabilera horrekin bat etorri beharko dute. UPV/EHUK ez du bere gain erantzukizunik hartzen zerbitzu honetan gordetako fitxategien edukiengatik.

 <b>U.P.V. E.H.U.</b> <b>IKT Gerenteordetza</b>	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>4 / 11</b>

- Diskoan karpeta konpartitu bakoitzeko 1GBeko kuota edukiko da.
- IKT Gerenteordetzak ez du berreskuratuko galdutako informaziorik; beraz, erabiltzailearen erantzukizuna izango da fitxategien kopia bat izatea.
- Zerbitzu hau erabiltzaileek taldean erabiltzeko da, ez banaka.
- IKTen Gerenteordetzak zerbitzuaren erabilera kontrolatu ahal izango du aldian-aldian; hala, edozein karpeta desaktibatu ahal izango du erabiltzen ez dela edo atal honetako zerbitzu baldintzak betetzen ez direla ikusiz gero.

### 3. ZERBITZUA NORI ZUZENDUA DAGOEN

UPV/EHUko AZP, ikertzaile eta irakasleei.

### 4. ZERBITZUA ERABILTZEA

#### 4.1 BALDINTZAK

Karpeta konpartitua sortzeko eskaera honako helbidean egingo da:

[www.ehu.es/gordetalde](http://www.ehu.es/gordetalde)

Orri horretara sartu ahal izateko LDAP erabiltzailea eta pasahitza behar dira (informazio gehiago [www.ehu.es/ldap](http://www.ehu.es/ldap) helbidean).


Behin karpeta konpartitua sortuta, erabiltzaileek bertara sartu ahal izateko administratzailearen baimena baino ez dute behar, bestelako eskaerarik egin beharrik gabe.

#### 4.2 SARTZEKO MODUA

UPV/EHUko saretik baino ezin da sartu. Beste edonondik sartu ahal izateko VPN erabili behar da (informazio gehiago [www.ehu.es/vpn](http://www.ehu.es/vpn) helbidean).


Lanpostua UPV/EHUko uneko direktorioan sartuta badago, ez da ezer egin behar, izan ere, mahaigainean "GORDETALDE *karpeta\_izena*" izeneko esteka bat sortuko baita automatikoki.

**INPORTANTEA:** Gordetalde zerbitzua erabiltzeko Gorde zerbitzuan alta eman behar da.

 U.P.V. E.H.U. IKT Gerenteordetza	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>5 / 11</b>

Bestela hurrengo instrukzioak jarraitu behar izango dituzu, erabilitako sistema eragilearen arabera.

---

	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>6 / 11</b>

### Windows 2000/XP duen ordenagailu batetik

Mahaigainaren edozein lekutan, ikurretan izan ezik:

Eskuineko botoia -> Nuevo ->Acceso directo.

Leiho bat irekiko da, eta bertan komunean dagoen kapetaren kokapena adierazi behar dugu.

Idatz ezazu elementuaren kokapena: [\\gordetalde.ehu.es\grupos\\$\karpeta\\_izena](\\gordetalde.ehu.es\grupos$\karpeta_izena)

Sakatu ezazu "Siguinte" botoia. Erabiltzailea eta pasahitza eskatuko dizkizu:

Erabiltzailea: **adm\erabiltzailea** (LDAP erabiltzailea, ikusi baldintzen atala)

Pasahitza: pasahitza (LDAP pasahitza, ikusi baldintzen atala).

Amaitzeko, sarbide zuzenaren izena aukeratu edo, besterik ezean eskaintzen dena (karpetaren izena) har dezakegu. Ondoren "Finalizar" botoia sakatuko dugu.


### EHUX sistema eragilea duen ordenagailu batetik

Grafiko moduan:

- Ataza-barra, Guneak, Zerbitzariarekin konektatu

Bete honako eremuak:

- Zerbitzu mota: Windowsekin partekatua
  - Zerbitzaria: **gordetalde.ehu.es**
  - Partekatua: **grupos\$**
  - Karpeta: **karpeta\_izena**
  - Erabiltzaile-izena: (LDAP erabiltzailea, ikusi baldintzen atala)
  - Domeinuaren izena: **adm.ehu.es**
  - Konexioan erabiltzeko izena: *[jarri nahi dena]*
-

	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>7 / 11</b>

Konexioan erabiltzeko adierazi den izenarekin ikono bat sortuko da mahaigainean.

- Egin klik bi aldiz ikonoaren gainean eta sartu pasahitza (*LDAP pasahitza, ikusi baldintzen atala*)

### Mac OS X sistema eragilea duen Macintosh ordenagailu batetik

"Finder" menutik:

- Joan, Zerbitzarira konektatu...

Leiho bat irekiko da, eta bertan eremu hau beteko dugu:

- Zerbitzariaren helbidea: **smb://gordetalde.ehu.es/grupos\$/nombre\_carpeta.**

Beste leiho bat irekiko da, eta bertan eremu hauek beteko ditugu:

- Lantaldea edo domeinua: **ADM**
- Izena: [LDAP erabiltzailea, ikusi baldintzen atala]
- Pasahitza: [LDAP pasahitza, ikusi baldintzen atala]


"GRUPOS\$" izena izango duen ikono bat sortuko da mahaigainean.

## 5. PASAHITZA ALDATZEA

Pasahitza honako helbidean aldatu ahalko da:

[www.ehu.es/bilatu](http://www.ehu.es/bilatu)

---

 <b>U.P.V. E.H.U.</b> <b>IKT Gerenteordetza</b>	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>8 / 11</b>

## 6. CHECKPOINT-AK

Checkpoint direlakoak informazioaren osotasuna bermatzeko mekanismoak dira. Horien bidez, erabiltzailea karpeta kopia batera sartu ahalko da, kopia hori aurreko egunean bezala egongo delarik. Checkpoint-ak egunero (larunbata eta igandea izan ezik) egiten dira 23:00etan; hau da, egunero karpeta kopia bat egongo da eskuragarri aurreko eguneko 23:00etan zegoen egoera berdinean (astelehenean ostiralekoa izango dugu). Honek nahi gabe ezabatutako fitxategi bat berreskuratzeko aukera ematen du (betiere aurreko eguneko 23:00etan hor bazegoen eta ezabatu den egun berean berreskuratzen bada) edo fitxategi baten aurreko bertsioa berreskuratzeko (aurreko eguneko 23:00etan hor zegoena bakarrik).

Fitxategi baten aurreko bertsioa berreskuratzeko kontuan hartu behar da erabiltzen ari den karpeta kopiatzen bada, fitxategiaren azken bertsioa suntsitu egingo dela, gero berreskuratzeko aukerarik gabe.

Checkpoint-era eta karpeta normaletara sartzeko modua antzekoa da, baina aurreneko kasuan soilik irakurtzeko moduan sartu ahalko da (ezingo da bertan dagoen ezer ezabatu/aldatu/sortu). Behin checkpoint-era konektatuta (ondoren datozen argibideei jarraituz), bertako fitxategietara sartu ahalko da beste edozein karpetatan bezala.


Karpeta konpartitura soilik irakurtzeko baimenarekin eta irakurtzeko zein idazteko baimenarekin sar daitezkeen guztiak sartu ahalko dira checkpoint-era.

Karpeta originalera sartzeko gertatu bezala, checkpoint-era UPV/EHUko saretik soilik sar daiteke. Beste edonondik sartu ahal izateko VPN erabili beharko da (informazio gehiago [www.ehu.es/vpn](http://www.ehu.es/vpn) helbidean).

Karpeta barruan kopia egin zeneko data eta ordua izenean agertzen dituen azpikarpeta bat egongo da (adibidez, 2007\_07\_10\_20.00.04\_GMT) eta honen barruan, karpeta bera. Arrazoi teknikoak direla-eta, checkpoint-a egiten den benetako ordua (23:00ak) eta erakusten den ordua (20:00ak) ez datoz bat.

Sartzeko modua erabilitako sistema eragilearen arabera izango da:



 <b>U.P.V. E.H.U.</b> <b>IKT Gerenteordetza</b>	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>9 / 11</b>

### Windows 2000/XP duen ordenagailu batetik

Mahaigainaren edozein lekutan, ikurretan izan ezik:

Eskuineko botoia -> Nuevo ->Acceso directo.

Leiho bat irekiko da, eta bertan komunean dagoen kapetaren kokapena adierazi behar dugu.

Idatz ezazu elementuaren kokapena: [\\gordetalde.ehu.es\grupos\\$\karpeta\\_izena\ckpt](\\gordetalde.ehu.es\grupos$\karpeta_izena\ckpt)

Sakatu ezazu "Siguinte" botoia. Erabiltzailea eta pasahitza eskatuko dizkizu:

Erabiltzailea: **adm\erabiltzailea** (LDAP erabiltzailea, ikusi baldintzen atala)

Pasahitza: pasahitza (LDAP pasahitza, ikusi baldintzen atala).

Amaitzeko, sarbide zuzenaren izena aukeratu edo, besterik ezean eskaintzen dena (karpetaren izena) har dezakegu. Ondoren "Finalizar" botoia sakatuko dugu.


### EHUX sistema eragilea duen ordenagailu batetik

Grafiko moduan:

- Ataza-barra, Guneak, Zerbitzariarekin konektatu

Bete honako eremuak:

- Zerbitzu mota: Windowsekin partekatua
  - Zerbitzaria: **gordetalde.ehu.es**
  - Partekatua: **grupos\$**
  - Karpeta: **karpeta\_izena\ckpt**
  - Erabiltzaile-izena: *(LDAP erabiltzailea, ikusi baldintzen atala)*
  - Domeinuaren izena: **adm.ehu.es**
  - Konexioan erabiltzeko izena: *[jarri nahi dena]*
-

	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>10 / 11</b>

Konexioan erabiltzeko adierazi den izenarekin ikono bat sortuko da mahaigainean.

- Egin klik bi aldiz ikonoaren gainean eta sartu pasahitza (*LDAP pasahitza, ikusi baldintzen atala*)

### Mac OS X sistema eragilea duen Macintosh ordenagailu batetik

"Finder" menutik:

- Joan, Zerbitzarira konektatu...

Leiho bat irekiko da, eta bertan eremu hau beteko dugu:

- Zerbitzariaren helbidea: **smb://gordetalde.ehu.es/grupos\$/nombre\_carpeta/.ckpt.**


Beste leiho bat irekiko da, eta bertan eremu hauek beteko ditugu:

- Lantaldea edo domeinua: **ADM**
- Izena: [LDAP erabiltzailea, ikusi baldintzen atala]
- Pasahitza: [LDAP pasahitza, ikusi baldintzen atala]

"GRUPOS\$" izena izango duen ikono bat sortuko da mahaigainean.

## 7. ZERBITZUA BERTAN BEHERA UZTEA

IKT Gerenteordetzak zerbitzua bertan behera utzi ahalko du "Zerbitzua erabiltzeko baldintzak" deritzon atalean adierazitako baldintzaren bat betetzen ez bada.

	<b>GORDETALDE</b>	
	Fecha / Data <b>2011/02/24</b>	Página / Orrialdea <b>11 / 11</b>

## 8. ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Zerbitzu honekin lotutako edozein gorabehera Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzuari (CAU) zuzendu beharko zaio:

[www.ehu.es/cau](http://www.ehu.es/cau)

---